

# JOSE IGNACIO MUNILLA GOTZAINARI GUTUNA

Donostia, 2014ko uztailak 14

Donostiako Elizbarrutiaren egoera gero eta tamalgarriagoa ikusirik, Elizarekiko maitasunak eraginik eta gure Elizbarrutia nolako norabide arriskutsuan eta irteera gabea sartzen ari zaren salatu nahirik idazten dizugu Elizbarrutiko apaiz talde batek gutun hau.

Frantzisko Aita Santuaren idatzietan eta jardueran, argi eta garbi ikus daiteke nolakoa izan behar lukeen eliz arduradunaren jokaerak eta jarduerak: elizkideei entzuten eta haien iritziak aintzat hartzen jakin behar du, elizkideen kezkak jaso eta bere egin behar ditu eta haiengandik hurbil egon, eta ez berak bere gustuko duen moduan eta estiloan tematua. “Esanguratsuak Espainiako Gotzainei esandako hitzak: *“Ez da zaila izango bide horiek aurkitzea, baldin Jaunaren urratsei jarraitzen badiegu, Hura “ez baitzen besteen zerbitzuak hartzera etorri, besteak zerbitzatzera baizik” (Mk 10, 45)... Bilaketa horretan, garrantzitsua da, Gotzainak bere burua bakarrik ez ikustea, bakarrik dagoela uste ez izatea; baizik eta ardurapean jarri dioten taldeak ere baduela sena Jainkoaren gauzetarako. Batez ere, hurbilen dituen lankideek, apaizek, dutela sen hori, fededunekin harreman estuan direlako, haiek dituzten eguneroko behar eta kezkak zein diren badakitelako. Erlioso-erlijiosek ere badute sen hori... Baita laikoek ere, bizitzako egoera ezberdinetan eta beren eremuetan aurrera baitaramate Elizaren testigantza eta misioa”.*

Zure jokaera, ordea, oso bestelakoa dela ikusten ari gara, eta jokaera hori Elizbarrutiari kalte handia egiten ari zaiola. Elizbarrutia zeure “feudotzat” hartua duzula dirudi, eta nahi duzuna nahi duzun eran egiteko ahalmenaren jabe bakarra eta osoa zarela. Elizbarruti honen arduradun egin zintuztenetik antolatu eta bultzatu duzun ekintza asko, Elizbarrutiak 1980tik zekarren pastoral hari eta jarduera ezertarako kontuan izan gabe, Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua behar bezala kontsultatu gabe eta, behin baino gehiagotan, Presbiterioaren eta Kontseilu Presbiteralaren beraren iritzia kontra eraman duzu aurrera. *“Eliza Ebanjelioaren zerbitzura”* dokumentua aipatu izan duzu, bai, batez ere zure ministeritzaren hasieran; baina gero,

programak eta ekintzak askotan ez datoz bat dokumentu horren espirituarekin. Hori ez da inola ere onargarria, ez eklesiologikoki ez pastoralki.

Adibide asko aipa dezakegu: Seminarioa Iruñeara eraman izana; gure herriaren baketze arazoaren inguruan argitaratu duzun zenbait idatzi eta antolatu duzun zenbait ekitaldi eta egin duzun zenbait homilia; Elizbarrutiko Proiektua egiteko modua; zure aurretik jarritako arduradunak, lankideak edota irakasleak zenbait erakundetatik botatzea; beste Elizbarruti batzuetatik, Toledotik batik bat, etorritako zenbait apaiz eta apaizgai –zeuri dagokizun estilo jakin batekoak, noski- besterik gabe hartu izana; bizitza kontenplalaria “bizkortzeko” aitzakiaz Bergarako klarisen komentura “monja” talde neo-konserbadorea ekartzea (Gotzaindegiak horretaz ezer ez zekiela esan arren).

Zure azken erabaki batzuk ere aipagarriak dira:

- Zenbait destino erabakitzean nolako jokaera izan duzun. Apaiz eta parroki-elkarte batzuk ez dira sentitu errespetatuak eta mindu egin dituzu. Destinoak erabakitzeko eta adierazteko orduan, presioak jasan dituzte apaiz batzuek, gauzak desitxuraturik eta egiak erdizka esanez, tokian tokiko egoera pastoralak eta beharrak kontuan hartu gabe eta, noski, bertako elkarteari inolako kontsultarik egin gabe.
- Gainera, kanpotik ekarritako apaiz-taldea sartzekoa duzu, aldeztu aurretik ez Kontseilu Presbiteralari, ez Artzipreste Kontseiluari gai hori planteatu gabe. Eta badakigu Kontseilu horiek adierazia dizutela kanpoko apaizik onartu aurretik oinarritzeko irizpideak eztabaidatu eta ezarri behar liratekeela. Eskabide hori aintzakotzat hartu gabe, zuk hartua duzu erabakia, Elizbarrutiko Presbiterioan kanpoko elementuak, joera jakin batekoak bakarrik sartuz. Uste al duzu erabaki hori Elizbarrutiko elkarteari eta Presbiterioaren onerako izango dela? Ez al da izango zure estrategia eta linea sendotzeko?
- Gipuzkoako gizartea gero eta euskaldunago denean, Elizbarrutian gaztelania gero eta indartsuagoa da eta euskarari, euskal kulturari eta Euskal Herriaren izateari eta egoerari gero eta garrantzi txikiagoa ematen zaio. Ikusi besterik ez dago, adibidez, Elizbarrutian sartu duzun zenbait apaizek ez dakiela ezertxo ere euskaraz eta ikasteko asmo handirik ere ez zaiola ikusten.

Jokaera horren ondorioz, Elizbarrutia desitxuratzen eta desegiten ari dela salatu nahi dizugu, samin handiz. Testigu gara elizkide asko deseroso dagoela zu ezartzen ari zaren estiloko Elizan.

Bestaldetik, uste dugu ez dagoela ebanjelizatze proiekturik eta antolatzen diren ekintzek ez dietela erantzuten gure Elizbarrutiko eta gizartearen beharrei. Frantzisko Aita Santuaren “*Ebanjelioaren poza*” agiria aipatu bai, baina gure Elizbarrutian poz gutxi sumatzen dugu. Bitartean, ebanjelizatze-lana gero eta zailagoa gertatzen ari da, eta gure Elizaren izen ona ahultzen eta galtzen ari da.

Elizbarrutiko Presbiterioko apaiz garenez, gure kexak, iritziak, aholkuak eta salaketak aintzat hartu behar dituzula oroitarazi nahi dizugu eta eskatu, Elizbarrutiaren gobernurako halako erabakiak hartzean zeure irizpideak ez ezik, kontuan izan ditzazula nola elkartekide guztien beharrak eta nahiak hala Presbiterioak eskaintzen dizkizun irizpideak eta ekimenak. Gotzaina da Elizbarrutiaren lehen arduradun eta animatzailea, bai; baina ez bakarra, eta are gutxiago ardura osoa berak bakarrik eraman beharrekoa. Eliz elkartean denok gara, nor bere eginkizunaren arabera, arduradun eta erantzukizundun. Hau guztia kontuan hartzen ez duen Gotzainak ezin du bazkatu Eliz elkartea artzain onari dagokion eran.

Bost urte beteko dituzu aurki Donostiako Gotzain bezala, eta ohartuko zarenez, gure Elizbarrutia zatitu besterik ez duzu egin, nahiz eta zure aldeko apaiz eta laiko batzuk izan. Noiz arte horrela?

Ibon Alberdi Urrestarazu, Patxi Aizpitarte Mendia, Patxi Albizu Apaolaza, José Luis Aperribai Madinabeitia, Iñaki López Cazañares, José Ramón Trebiño, Antton Etxebeste Goikoetxea,, Feliz Azurmendi Ayerbe, Juan Aldasoro Zurutuza, Jesús Zubillaga Zubillaga, Ion Etxezarreta Zubizarreta, Jose Antonio Larrañaga, José Ignacio Eguskitza, Luis Aranalde Olaondo, José Ignacio Usabiaga Martín, Jesús Mari Arrieta, Juan Luis Murua Pagola eta 79 sinadura gehiago.

## Carta al Obispo José Ignacio Munilla

San Sebastián 14 de julio de 2014

**Sr. Obispo:**

Comprobando que la situación de la Diócesis de San Sebastián es cada vez más penosa, le escribimos esta carta movidos por nuestro amor al Evangelio y a la Iglesia, y queriendo denunciar que está conduciendo a nuestra Diócesis en una dirección arriesgada y sin salida.

En los escritos y comportamiento del Papa Francisco se puede ver con claridad cómo han de ser las actitudes y comportamientos de un responsable de la Iglesia: ha de saber escuchar y tomar en cuenta las opiniones de los creyentes, acoger sus preocupaciones y hacerlas suyas y estar próximo a ellos, y no encerrarse en el ambiente y estilo de su gusto. Resultan significativas las palabras dirigidas por el Papa Francisco a los Obispos españoles: *“No será difícil encontrar estos caminos si vamos tras las huellas del Señor, que “no ha venido para que le sirvan, sino para servir” (Mc 10, 45)... En esta búsqueda, es importante que el Obispo no se sienta solo, ni crea estar solo, que sea consciente de que también la grey que le ha sido encomendada tiene olfato para las cosas de Dios. Especialmente sus colaboradores más directos, los sacerdotes, por su estrecho contacto con los fieles, con sus necesidades y desvelos cotidianos. También los religiosos y religiosas... Y los laicos y laicas que desde las más variadas condiciones de vida y respectivas competencias llevan adelante el testimonio y la misión de la Iglesia”*.

Estamos comprobando, sin embargo, que su actuación es muy otra, y que este comportamiento está haciendo mucho daño a la Diócesis. Al parecer, considera la Diócesis como “feudo” suyo y actúa como si fuera el único que tiene la capacidad para hacer lo que quiere y como quiere. Desde que tomó posesión de la Diócesis, a la hora organizar y promover diversas actividades no ha tenido para nada en cuenta las líneas pastorales y la actuación que llevaba la Diócesis desde 1980, sin consultar adecuadamente al Consejo Pastoral Diocesano y, en más de una ocasión, en contra de la opinión del mismo Consejo Presbiteral. Ciertamente, en sus comienzos

citaba el documento “*Una Iglesia al servicio del Evangelio*”, pero luego, los programas y las actividades nada tienen que ver con el espíritu y el estilo de ese documento. Este modo de actuación no es aceptable, ni desde un punto de vista eclesiológico ni pastoral.

Podemos mencionar muchos ejemplos: ha trasladado el Seminario a Pamplona; algunos escritos, actividades y homilías en torno a la pacificación de nuestro pueblo; el modo de hacer el Proyecto Diocesano; la marginación o eliminación de un buen número de responsables, trabajadores y profesores que no eran de su gusto o del agrado de sus colaboradores de distintas instituciones diocesanas; la aceptación sin más de seminaristas y sacerdotes procedentes de otras Diócesis, especialmente de Toledo, para potenciar un estilo sacerdotal determinado entre nosotros; ha invitado e instalado en el convento de las clarisas de Bergara un grupo de “monjas” reconocidamente neo-conservador, bajo pretexto de “reanimar” la vida contemplativa (a pesar de que el Obispado afirmaba no saber nada de ello).

Merecen mención algunas de sus últimas actuaciones:

Por ejemplo, la realización de algunos destinos. La ligereza e improvisación de algunos nombramientos tienen difícil explicación, si no es desde la falta de claridad y auténtica escucha a los interesados y sus comunidades. Entre otras cosas, hemos podido saber que tiene la intención de introducir en la Diócesis un grupo de sacerdotes pertenecientes a una hermandad de fuera, sin haber tratado previamente el asunto en el Consejo Presbiteral ni en el Consejo de Arciprestes. Estos Consejos le han pedido que, antes de aceptar sacerdotes de fuera en la Diócesis, se debata y establezcan unos criterios básicos. Sin tener en cuenta esta razonable petición, Ud. ha tomado ya su decisión, introduciendo en el Presbiterio Diocesano sacerdotes de una orientación determinada y afines a su persona. ¿Cree que esa decisión será beneficiosa para la comunidad diocesana y para el presbiterio? ¿No será para reforzar su estrategia y su línea pastoral?

A la hora de decidir y hacer los destinos algunos sacerdotes se han sentido maltratados y presionados, desfigurando las razones y

diciendo verdades a medias, sin tener en cuenta la situación pastoral y necesidades de cada lugar y, por supuesto, sin escuchar a las comunidades ni a los sacerdotes.

Cuando resulta que la sociedad guipuzcoana es cada vez más euskaldun, en la Diócesis el castellano se hace cada vez más presente y se le concede cada vez menor importancia al euskera, la cultura vasca, y a la situación e identidad del País Vasco. No hay más que ver que algunos de los sacerdotes que ha incorporado a la Diócesis, además de desconocer el euskera, no muestran ningún interés en conocerlo.

Como resultado de estas actuaciones, queremos denunciar, con dolor, que la Diócesis está desfigurándose y deshaciéndose. Muchos fieles se sienten fuera de lugar en el estilo de Iglesia que Ud. está implantando. En cuanto a las actividades propuestas por Ud. y el Obispado, aparte de no ser apenas secundadas, están lejos de responder a las necesidades de nuestra comunidad diocesana y sociedad. Creemos que carecen, de hecho, de un proyecto que responda a estas necesidades. Mientras tanto, la acción evangelizadora se vuelve cada vez más difícil y el buen nombre de nuestra Iglesia se debilita.

Le queremos recordar y pedir que, en cuanto miembros del Presbiterio diocesano, tome Ud. en consideración nuestras opiniones, quejas y denuncias; que en las decisiones que afectan al gobierno diocesano, tenga en cuenta, además de sus opiniones, las demandas y necesidades de todos los diocesanos, atendiendo los consejos e iniciativas del Presbiterio. El Obispo es, ciertamente, el responsable primero de la Diócesis; pero no el único responsable, ni tiene que llevar esta responsabilidad en solitario. En la comunidad cristiana todos somos corresponsables, cada uno en función de su misión. Un Obispo que no tiene en cuenta todo esto no puede pastorear adecuadamente su Iglesia, por lo menos no al modo del Buen Pastor.

Pronto se cumplirán cinco años de su entrada en la Diócesis, y como Ud. mismo podrá comprobar si no cierra los ojos a la realidad, a lo largo de este tiempo la división y desconfianza mutua entre nosotros no han ido sino creciendo. ¿Hasta cuando va a durar esta situación?

Ibon Alberdi Urrestarazu, Patxi Aizpitarte Mendia, Patxi Albizu Apaolaza, José Luis Aperribai Madinabeitia, Iñaki López Cazañares, José Ramón Trebiño, Antton Etxebeste Goikoetxea,, Feliz Azurmendi Ayerbe, Juan Aldasoro Zurutuza, Jesús Zubillaga Zubillaga, Ion Etxezarreta Zubizarreta, Jose Antonio Larrañaga, José Ignacio Eguskitza, Luis Aranalde Olaondo, José Ignacio Usabiaga Martín, Jesús Mari Arrieta, Juan Luis Murua Pagola y 79 firmas más.